

I. ERANSKINA

IKASTURTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

IKASTETXEA:	ABADIÑO BHI	KODEA:	015071
ETAPA:	DBH	MAILA:	Aukeratu
IRAKASGAIA:	LATINA		
DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIA	Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia.		
DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIA ELKARTUA	Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia		
IRAKASLEAK:	BEGOÑA ABAD	IKASTURTEA:	22-23

Zeharkako konpetentziak:

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
5. Izaten ikasteko konpetentzia.

HELBURUAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK
1.Latinaren elementu morfologikoak, sintaktikoak eta lexikoak identifikatzea.	1.Latinaren oinarrizko elementu morfologikoak eta egitura sintaktikoak ezagutzea, eta horiek norberaren hizkuntzakoekin konparatzea. <ul style="list-style-type: none"> •Ea ulertzen duen latinaren oinarrizko funtzionamendua eta analogiarik eta desberdintasunik ezartzen duen bere hizkuntzako elementuekin eta egiturekin. •Ea dakien deklinabideak eta kasuek zertarako balio duten
2.Idatzizko ulermena eta ahozko eta idatzizko adierazpena hobetzea.	2. Latinezko esaldi motz eta errazak itzultzea <ul style="list-style-type: none"> •Ea ezagutzen dituen latinezko egitura morfologiko nagusiak. •Ea ondo egiten dituen esaldi labur eta errazen analisi morfosintaktikoak. •Ea ondo itzultzen dituen perpaus bakunak
3.Hizkuntza erromanikoen jatorria eta bilakaera ezagutzea. Hizkuntzen ezaugarri komunak eta hizkuntzen aniztasuna Europako herrien kultura-aberastasun gisa balioestea.	3.Eguneroko lexikoko termino erromantzeak sorrarazi dituzten etimoei bilakaera fonetikoko oinarrizko arauak aplikatzea. <ul style="list-style-type: none"> •Ea ezagutzen eta aplikatzen dituen bilakaera fonetikoaren mekanismoak. •Ea aztertzen dituen jatorri bera duten hitzen

4. Euskararen, gaztelaniaren eta ikasleek dakizkiten beste hizkuntza batzuen forma-elementuei eta egitura linguistikoari buruz gogoeta egitea: hizkuntzak ikastea errazteko.

5. Latinak euskaran izan duen eragina ikustea

6. Latinak hizkuntza erromanikoetan eta euskaran izandako bilakaera fonetikoaren oinarritzko arauak erabiltzea. Gaztelanian zein euskaran latineko ondare-hitzak, kultismoak eta esamoldeak identifikatzea.

7. Norberaren hizkuntzan latindar jatorria duen ohiko lexikoa ulertzea, bai eta, horien osagarri etimologikoetan oinarrituta, lexiko kultura, zientifikoa eta teknikoa ulertzea ere.

8. Erromako kulturaren eta zibilizazioaren ezaugarri nagusiak ezagutzea.

arteko esanahi desberdintasunak.

4. Hitzak familiatan biltzea, eta eratorpenaren eta hitzelkarketaren mekanismoak aplikatzea.

- Ea ondorioztatzen duen familia lexiko berekoak diren hitzen zentzua.
- Ea ezagutzen dituen eratorpenaren eta hitzelkarketaren mekanismoak, eta ea zuzen aplikatzen dituen.

5. Jatorri grekolatindarra duten eta eguneroko hizkuntzan eta lexiko zientifiko eta tekniko identifikatzea, eta horien zentzu etimologikoa azaltzea.

- Ea gai den eguneroko terminoak eta termino zientifiko eta teknikoak etimologikoki definitzeko.

6. Ikasleak dakizkien hizkuntzetan sartutako latinismoak eta jatorri latindarra duten ohiko lokuzioak ezagutzea.

- Ea ezagutzen eta ulertzen dituen hizkuntza modernoek hartutako latinezko esamoldeak.
- Ea bilatzen dituen hainbat testu motatan latinezko esamoldeak, eta azaltzen dituen horien erabilera eta esanahia.

7. Itzulitako autore klasiko eta modernoek testuetan ezaugarri historikoak edo kulturalak antzematea.

- Ea identifikatzen dituen aurretik ikasitako pertsonaiak eta gertaerak.
- Ea konparatzen dituen gizarte erromatarreko eta gure gizarteko bizimoduak, ohiturak eta jarrerak, eta horien balioespena egiten duen.

8. Erromak eta erromanizazioak ekarritako aldaketak identifikatzea.

- Ea adierazten duen mapa batean nondik nora zabaldu zen zibilizazio erromatarra eta kokaleku erromatar nagusiak non zeuden.
- Ea kokatzen dituen Espainiako mapa batean aztarna erromatar nagusiak.
- Ea ezagutzen duen erromatarren eguneroko bizitza.

9. Arrazoitzeko eta kritikatzeko ahalmena sortzea, tradizio horrekiko jakin-minezko eta errespetuzko jarrera bultzatzeko.

10. Literatura latindarreko funtsezko lanen testu itzuliak irakurtzea eta interpretatzea.

11. Ikasten ikastea

- Ea ezagutzen duen garai hartako emakumearen papera zein zen eta ea konpartazen duen gaur egungo emakumearen paperarekin.
- Ea biltzen duen erromanizazioak eguneroko bizitzan, ohituretan eta antolaketa politiko eta sozialean eragin zituen aldaketei buruzko informazioa, eta ea aldaketa horiek deskribatzen dituen.

9. Garai guztietako literatura- eta artelanetan mitología klasikoa inspirazio-iturri gisa bereiztea, eta ondare arkeologikoan erromanizazioaren aztarnak antzematea.

- Ea ezagutzen dituen mitologia klasikoko elementu nagusiak.
- Ea ohartzen den mitologia klasikoak historian zehar eta gaur egun oraindik ere edozein artelanetarako inspirazio-iturri gisa duen balioaz.

10. Irakasleak lagunduta lan erraz bat egitea Erromako lan artistiko edo teknikoen, historiaren, erakundeen edo bizimoduaren edozein alderdiri buruz.

- Ea biltzen duen informaziorik Erromako kulturaren inguruko edozein alderdiri buruz zeinahi iturri erabilita (entziklopediak, ikus-entzunezko baliabideak, webguneak...), hala nola Erromako bizimoduari ingurukoa, historiaren ingurukoa, erakunde sozial edo politikoen ingurukoa, lan artistikoen ingurukoa eta abar.
- Ea antolatzen duen Lortutako informazioa.
- Ea idazten duen lana eta, ahal dela, erabiltzen dituen informazio- eta komunikazio-teknologiak lana gelan aurkezteko.
- Ea bere kideen iritziak aditzen dituen eta horiekiko errespetuzko jarrera duen.

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

1. Ebaluazioa

HIZKUNTZA

- Latinaren jatorria eta ezaugarriak: indoeuropea,hizkuntza erromanikoak. Hizkuntza ez indoeuroparrak. Kasuak eta funtzioak.
- Morfosintaxia: 1 eta 2. deklinabideak. 3 bukaerako adjektiboak
- Aditz morfosintaxia: Sum aditza eta 4 aditzjokoak, era aktiboa indikatiboera OA, L. INP. , GER, INP .
- Juntagailu koordinatuak. Perpausa: bakunak eta koordinatuak: kopulatiboak, adbersatiboak, aukerakoak, kausalak
- Preposizioak: ad, per,extra, post, intra, in, e, inter,ab,ante,cum.

TESTUAK

Testuen analisia eta itzulpena. Itzultako testuen irakurketa eta iruzkina.

LEXIKOA ETA BILAKAERA

- Onarrizko hiztegia: hitz familiak. Oinarrizko hiztegia: 1. eta 2. deklinabideko izen eta adjektiboak bereganatzea, baita 1. , 2. ,3, eta 4. aditz jokoko aditzak eta bestelako oinarrizko hiztegia.
- Bilakaeraren hasiera eta sarrera.

ERROMA ETA BERE LEGATUA

- Erromaren jatorria: Troiako guda, Eneas, Romulo eta Remo.
- Kargu politikoak
- Erromatarren presentziaren maila desberdinak Euskal Herrian: “ager vasconum” eta “saltus vasconum
- Espainiaren erromanizazioa eta gaurrengungo proiektzioa.
- Erljio erromatarra:jainkojainkosak, heroiak...

2. Ebaluazioa

HIZKUNTZA

- Morfosintaxia: deklinabideak: 3.deklinabidea. Bi bukaerako adjektiboak eta bukaera bakarrekoak.
- Aditz morfosintaxia. Sum aditza eta 4 aditzjokoak, era aktiboa INDIKATBOERA L. PERF., LA plusk. SUBJ. OA eta LA INP.
- Zenbatzaileak:kardinalak eta ordinalak.
- Perpausa: bakunak, koordinatu eta menpekoak.

TESTUAK

Testuen analisia eta itzulpena. Itzultako testuen irakurketa eta iruzkina.

LEXIKOA ETA BILAKAERA

- Latin hiztegia: hitz familiak. Oinarrizko hiztegia: 3. deklinabideko izen eta adjektiboak bereganatzea, baita 1., 2., 3. eta 4. aditz jokoko aditzak eta bestelako oinarrizko hiztegia.
- Latineko bokalen ohiko bilakaera fonetiko, morfologiko eta semantikoa gaztelerara
- Latineko kontsonanteen ohiko bilakaera fonetiko, morfologiko eta semantikoa euskera eta gaztelerara (beste hizkuntza batzuetara ere interesgarria denean)

ERROMA ETA BERE LEGATUA

- Erljio domestikoa: kultoa, apaizak...
- Erromako armada.
- Erromatarren etxea.
- Eguneroko bizitza: Emakumea, familia, erromatarren izenak, ezkontza, foroa, termak, antzerkia, zirkua, anfiteatroa, janaria, janzkera, harremanak.

3. Ebaluazioa

HIZKUNTZA

- 4 eta 5.deklinabideak.
- Izenordeak: pertsonalak, edutezkoak eta erakusleak.
- Adberbioak eta zirkunstantzialak.
- Aditz morfosintaxia: Sum aditza eta 4 aditzjokoak, era aktiboa. SUBJ. LAPERF eta LAPLUSK.

TESTUAK

Testuen analisisa eta itzulpena. Itzultako testuen irakurketa eta iruzkina.

LEXIKOA ETA BILAKAERA

- Latin hiztegia: hitz familiak. Oinarrizko hiztegia: 4. eta 5. deklinabideko izen eta adjektiboak bereganatzea, baita 1., 2., 3. eta 4. aditz jokoko aditzak eta bestelako
- Oinarrizko hiztegia osatzea eta ondare hitzak eta kultismoak.
- Latinezko esamoldeak.

ERROMA ETA BERE LEGATUA

- Literatura erromatarra: Historiografia, epika, lirika , antzerkia eta oratoria.
- Hirigintza

ARAZO EGOERA BATETIK ABIATUTA UNITATE DIDAKTIKO BAT PROGRAMATZEKO TXANTILOIA

Arloa: LATINA

Gaia: MITOLOGIA LITERATURAN

Maila: 4 D.B.H.

Saioak: 7

Proposamenaren justifikazioa:

Mitoei antzinako jainko eta heroiei buruzko kontakizun imajinarioak dira, beraz ez dute errealitatean inolako oinarririk. Mitoak naturako indarrak zergatik gertatzen ziren azaltzeko asmatu ziren eta horrela jarraitu zuten filosofia agertu zen arte. Izan ere, filosofia alde batera utzi zituen mitoak ez zutelako azalpen logikorik.

Literaturaren bidez, ideiak, sentimenduak, gertakariak, mundua ikusteko eta adierazteko moduak eta bideak transmititzen ditugu. Baina literaturaz gozatzeko, lehendabizi, ezagutu egin behar dugu, literatura bizi eta sentitu egin behar dugu.

Mitoei eta literatura klasikoa lantzea eta literaturaz gozatea da sekuentzia didaktiko honen helburua, haien esanahiaren inguruan gogoeta eginez eta gure gaur egungo literaturarekin lotuz da sekuentzia didaktiko honen helburua.

Arazo-egoera:

A. Testuingurua:

Gure literaturan erromatarren eta grekoen eraginaren aztarnak aurkitzen ditugu bai gaietan bai formetan. Beraz, gaur egungo idazleek mitologiaren oinarrituta euren produkzioak egiten dituzten.

B. Arazoa:

Mitologia eta literatura klasikoaren irakurketa bultzatzea oso garrantzitsua da ikas-prozesuan kulturaren eta hizkuntza aberasteko.

C. Helburua:

Ikasleek mitologia ezagutzea, baloratzea eta onararaztea gaur egungo literaturan izan duten garrantzia.

Eginkizuna: Ikasleek mito batetik abiatuta produkzio simple bat sortu behar dute.

Oinarrizko kompetentziak:

A. Zeharkakoak:

- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
- Elkarbizitzarako kompetentzia.
- Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
- Izaten ikasteko kompetentzia.

B. Diziplina-konpetentziak:

- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia (jarduera guztietan)

Helburu didaktikoak:

- Mitoaren esanahia interpretatzea.
- Literatura balioestea sentimenduak eta ideiak adierazteko baliabide gisa eta une jakin bati lotutako sorkari gisa.
- Literatura klasikoaren zenbait ezaugarri ezagutzea.
- Zenbait baliabide literario ezagutzea eta baliatzea.
- Baliabide digitalak eta informazio iturriak modu eraginkorren baliatzea.
- Lankidetzaren aritzea norberaren iritziak adieraziz eta besteenak errezpetatuz.
- Autorregulazio eta ebaluazio prozeduretan trebatzea.

Edukiak:

- Mitoaren ezaugarriak
- Literatura klasikoaren ezaugarriak
- Hizkuntza baliabideak eta baliabide literarioak hainbat genero literarioan.
- Testuak interpretatzeko prozedurak.
- Informazioa bilatzeko eta laburtzeko prozedurak
- Ebaluazio-prozedurak.

Jardueren sekuentzia:**A. Hasierako fasea:**

1. **Jarduera:** Zer da mitoa? Zer da mitologia?
2. **Jarduera:** Zein da zein? Mitologiako jainko-jainkosak identifikatzeko joku bat.

B. Garapeneren fasea:

3. **Jarduera:** Entzun dituzu inoiz latineko esamolde hauek? Seguro baietz, gure bizitza arruntan erabiltzen ditugulako.
4. **Jarduera:** lotu esamoldeak bere esanahiarekin.
5. **Jarduera:** Mitoaren itzulpena: Apolo eta Dafne.

6. Jarduera: Mitoari buruzko galderak erantzun.

7. Jarduera: Garcilaso de la Vegaren soneto XIII irakurri eta galderak erantzeun. Topikoa literarioak azaldu.

8. Jarduera: Garcilaso de la Vegaren III Eglogaren zati bat irakurri eta berdintasunak bilatu.

C. Aplikazio eta komunikazioaren fasea: Eguneroko bizitzarako jarduerak proposatu.

9. Jarduera: Produkzio bat egitera ausartzen gara ikusitako mitoa oinarria gisa hartuta.

10. Jarduera: Produkzio onenak aukeratzen ditugu.

11. Jarduera: Produkzioak taldean konpartitzen ditugu.

12. Jarduera: Zer ikasi dugu?

C. Orokortzea eta transferentzia:

13. Jarduera: Gaur egungo produkzio literarioetan aztarnak mitologikoak aurkitzen dira?

Ebaluazioa:

A. Adierazleak

- Ea baladen interpretazioan parte-hartze aktiboa izan duen eta bere iritzia adierazi duen.
- Ea aztertutako testuen baliabide estilistiko eta literarioak antzemateko gai den.
- Ea hizkuntzaren erabileraren gaineko gogoeta egiten duen.
- Ea gai den taldeko zereginetan erantzukizunez aritzeko, erabakiak hartuz, iritzia emanaz eta gainerakoenak errespetatuz.
- Ea gai den aurrez emandako informazio-iturri analogiko eta digitalak era egokian erabiltzeko eta informazioa hautatzeko.
- Ea autoebaluazio eta ebaluazio prozeduretan parte hartzen duen eta hobetzeko iradokizunak egiten dituen.:

B. Tresnak:

- Behaketa zuzena eta irakaslearen kuadernos.
- Irakaslearen koadernoak, egindako ariketak eta ariketen kalitatea.
- Partehartzea.
- Autoebaluazioa.
- Egindako produkzioa: mitoaren ezaugarriak, elemento mitologikoak, ezaugarri estilistikoak...

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

Latina eta Testuei dagokienez, irakasleak aukeratutako testuak landuko dira. Hezkidetzeta eta Agenda 30 ikastetxeko proiektuak jasotzen dituen gaiak landuko dituzten irakurketak ere landuko dira. Analisia eta itzulpena izango dira iharduera nagusiak; horretarako, irakasleak beharrezkoak iruditzen zaizkion azalpenak emango dituelarik. Horrez gain, irakurketa- faseei lotutako estrategiak landuko dira: irakurri aurretik, irakurri bitartean eta irakurri ondoren eta irakurketa prozesuren ezaugarriak kontutan hartu ditugu. Ikaskuntza esanguratsua, jarrera kritikoen garapena eta pentsamendu abstraktua bultzatu nahi dira, baita ikasleengan gizarte-kontzientzia sustatu ere.

Lexikoak hiztegia eta metodo deduktiboen konbinazioa izango du ardatz nagusi. Bakoitzak bere hiztegitxo eratuko duelarik. Besteak beste, zentroan dagoen Agenda 21 proiektuari jarraituz, Elikadura zirkularraren gaiaren hiztegia landuko dugu.

Legatua lantzerakoan apunteak eta eskolako liburutegi eta Informatika gela erabiliko da behar den informazioa bilatzeko.

Erromari buruzko ikus-entzunezko eta Interneteko baliabide eta materialen erabilera ere aipatu behar da, gero bestelako iharduerekin (galdetegiak, eskemak, laburpenak ...) osatuko direlarik.

Metodologia anitza eta prozedura ugarikoa (kontzeptuak, prozedurak, jarrerak...), aktiboa eta parte hartzea bilatuko duena izango da. Hausnarketa-ekintza metodoan oinarrituta egongo da eta honako irizpide hauek izango ditu kontuan:

- . Gaia ikasleen ezaugarriei egokitzea.
- . Aniztasuna kontuan hartzea.
- . Ezagutzaren eraketa pertsonala, ikasketa esanguratsua.
- . Interakzioa: talde dinamikak, berdinen arteko elkarlana eta irakaslearen azalpenak.

Irakasleen eta ikasleen eginkizuna: irakaslearen azalpenak, banakako lana , talde txikiko lanak eta talde handikoak, egindako lana bateratu eta aurkeztu besteen aurrean.

Baliabideak:

TESTU LIBURUA: (zertarako erabiltzen den argitu)

Giltza DBH 4 ARGITALETXEA: Edebé Taldea

Idatzitakoak : fotokopiak (teoria eta ariketak)

Power Point-ak , Drive,Clasroom...

IKT.

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa].

didaktikoa...].	
<p>Idatzizko probak: azterketak Taldeko lana eta banakako lana. Ikasgelako koadernoak: ariketak, etxeko lanak, klasean partehartzea.</p>	<p>Ebaluaketa bakoitzan froga objetibo bi egongo dira . Lan bat ere aurkeztu behar dute . Klase eta eguneroko lana eta jarrera ere kontutan hartuko da. Konzeptuak: Froga objetiboak :+/- 70</p> <ul style="list-style-type: none"> • Azterketa % 50 • Lana %20 <p>Pozedurak eta jarrera: Klaseko lana, etxekolanak eta gaiari buruzko jarrera: +/- 30</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</p>	
<p>Ebaluazio jarraia denez hurrengo ebaluazioa gaituz gero berrezkuratzat emango da. Dena den, gaituzgabekoek aparteko ariketak egin beharko dituzte gaituzten laguntzeko eta hala erabaki ezkerok baita froga berezi bat..</p>	

OHARRAK

JOKABIDE DESEGOKIEN ONDORIOAK

Ikasleek, ikasgai honetan jokabide desegokiak izateak, berezko ondorioak izateaz gain, ikasgai honekin lotutako jarduera osagarrietan parte hartzeko aukeran ere ondorioak izango ditu.

Gauzak horrela, jarduera osagarriaren dataren aurretik, ikasle batek jokabide desegokiak izanez gero, irakasleak erabaki ahalko du, jarduera osagarriaren arabera, ikasle horrek jardueran parte hartu ahalko duen, edota ikastetxean bertan garatuko dituen konpetentzia horiek.